

- FUNTSEZKO JARDUERAK

Enpresa batek bere balorezko proposamena egin dezan, hori bera bere bezeroei helarazi diezaien, bezeroekiko harremanak manten ditzan eta, azkenik, diru sarrerak sor ditzan egin beharreko jarduerak.

Gure kasuan chip-ak egingo ditugu. Horretarako, gure informatikariek honen ardura hartuko dute. Geroago, elkartu garen enpresen produktuetan sartuko ditugu, hala, produktu berriak sortuz; hau da, mugikor zorroetan, txupetetan eta zenbait zorroetan jendea eskuragarri izateko.

Denda fisikorik ez dugunez, online denda eguneratuta izan behar dugu. Horretarako informatikari bat koordinatzaile gisa lan egingo du, online denda antolatzeko (produktu berriak publikatuz, bazkideak diren bezeroei deskontuei buruzko informazioa bidaliz, web orria diseinatuz) eta dena behar den moduan funtzionatzeko. Inolako arazorik egoten bada, adibidez web orria jausi egiten bada, gure informatikariak prest egongo dira arazoari aurre egiteko eta konpontzeko.